

# MUGARIK GABE

## 2024ko TXOSTENA

mugarik gabe

Garapenerako Lankidetza GKEa den Mugarik Gabetik herrien arteko globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Gure lana, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango den giza garapen integrala lortu nahian, tokia-tokiko hasten dugu mugetik haratago zabalduz.


**ARABA**
"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g
01003 Vitoria-Gasteiz
945 277 385 – araba@mugarikgabe.org

**BIZKAIA**
Vicente Garamendi auzunea 5, behea
48006 Bilbao
94 415 43 07 – bilbao@mugarikgabe.org

**GIPUZKOA**
Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea
20009 Donostia
943 445 977– gipuzkoa@mugarikgabe.org

**www.mugarikgabe.org**
Mugarik Gabe
@mugarikgabe
@mugarikgabeongd
@MugarikGabeONGD



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_



# MUGARIK GABE
## 2024ko TXOSTENA

mugarik gabe

Txosten hau Jesús Gonzálezi eskaini nahi dio-gu, 2024an zehar utzi baikintuen.

Mugarik Gaben gauza asko gertatu zaizkigu, baina inoiz ez dugu kiderik galdu izan, eta ez da egunik igarotzen berak utzitako hutsunea nabaritu gabe.

Zurekin bidea partekatu ahal izanaren eta hain-beste ikasi izanaren pribilegioa ospatzen dugu.

Zu gogoratzen jarraitzen dugu, gutako bakoi-tzean utzitako aztarnagatik, borrokan zenuen irmotasunagatik, aliantzak ehuntzeko zure ahalmenagatik, zure konpromiso eta elkarta-sunagatik, zure laguntasunagatik, zure pertso-na-, familia-, gizarte- eta politika-ondareagatik.

Lankidetzaren instrumentalizazioak okertu gabeko nazioartekotasunaren balioak man-tentzen jakin zenuen, beste kide bat izaten, es-pazioak, eztabaidak, barreak eta bizitza parte-katzen, eta lagun bihurtu zinen.

Boliviatik, aurreko egunean Ivan Sanjinesek bere bizia eta bere borrokak ospatu behar ge-nituela idatzi zigun, eta hori egiteko modurik onena herrien askatasunaren aldeko borroka-rekin jarraitzea da.

Eskerrik asko guztiagatik, Jesús, gure bihotze-tan beti biziko zara.

*Zure memoriaren alboan ibiltzen jarraituko dugu...!*



# ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA BIZITZA JASANGARRIAK HERRI INDIGENAK

2024an zehar, *Bizitza Jokoan* kanpaina berriz ere Bizitza Jasangarriak eta Herri indigenak-eko Hezkuntza lantaldean protagonista izan zen. Zerbaitegatik, bigarren fase horretan aldaketa-proposamenak eta alternatibak sustatzera bideratu ginen, hiru eskubide defendatzeko: 1) herri indigenen lurraldean ezarri nahi duten edozein proiektu estraktibistaren aurrean kontsulta aske eta informaturako eskubidea; 2) guztientzako lurralde jasangarrirako eta ingurumen osasuntsu eta osasungarrirako eskubidea; 3) eta lurralde hori defendatu ahal izateko eskubidea.

Hiru eskubide horiek gure ekintzen ardatz nagusia izan ziren, eta urtean zehar bi une gako egon ziren: martxoan Bernardo Caal-en bisita, enpresa eraikitzaile eta hidroelektrikoen aurrean Cahabón ibaia defendatzeagatik kriminalizatutako Guatemalako defendatzailearena, eta azaroan kazetari eta defendatzaileekin Guatemalara bidaia. Bigarren horren inguruan orrialde hauetan erreportaje berezia aurkituko duzue.






## FORMAKUNTZAK, ESKOLAK ETA IKASLEEKIN TOPAKETAK

Latinoamerikan lurra eta lurraldea defendatzeko aipatutako eskubideen defentsaren, eta klima- eta zibilizazio-krisiaren testuinguru honetan hemendik ekiteko aukeren inguruko hausnarketa gazteekin jorratzea funtsezkotzat hartzen dugu. Zentzu horretan, 2024an unibertsitateko ikasleekin topaketa eta hartu-emanerako espazio ugari izan genituen.

***Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta*** formakuntza ekimen aipagarria izan zen. Giza eta ingurumen eskubideen norbanako eta kolektibo defendatzaileen kriminalizazioaren eta klima-krisiaren arteko harremanean sakontzea bilatu genuen. Pertsona ororentzat eskubide guztiak bermatzeko, bizitza jasangarrietara igarotzeko alternatiben inguruko hausnarketa ere sustatu zuen formakuntzak. Metodologiak protagonista eta hizlari nagusitzat eskubideen defendatzaileak izan zituen eta ekintzara pasatzeko dinamika parte-hartzaileekin eta lantaldeekin konbinatu genituen.



Leioako UPV/EHUko Hezkuntza Fakultatean hiru formakuntza-espazio erraztu genituen eta horietako bi *Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta* formakuntzan izan ziren. Bat Karen Medrano Chávez Guatemalako gazte defendatzailearekin egin genuen, Bizitza, Amalurra, Lurra eta Lurraldea Defendatzeko K'iche' Herrien Kontseiluko (CPK) Gazteen Batzordeko kidea eta Lolita Chávez Ixcaquic defendatzailearen alaba

nagusia, ama zazpi urtez bere herrialdetik erbesteratu behar izan zen, lurraldea defendatzeagatik zenbait heriotza-mehatxu jaso ostean. Bestea Bernardo Caal Xol lider maia indigena defendatzailearekin egin genuen, ibaien eta bere komunitatearen eskubideak multinazionalen aurrean defendatzeagatik lau urtez kartzelatua. Hirugarren formakuntza espazioa ***Fikzio Klimatiko* dinamika** izan zen, Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea den Isidro Jiménez aktibista ekologistaren eskutik. Eskolak klima-aldaketak planteatzen dituen erronken inguruko hausnarketa-espazioa eskaintzen du, eta moldatzeko eta etorkizunerako nahi dugun gizartea eraikitzeko gure burua nola antolatu dezakegun irudikatzera gonbidatzen gaitu. Ikuspuntu sortzaile eta pedagogikotik abiatuta, fikzio klimatikoko film baterako gidoia garatu genuen eta gure ideiei bizia emateko adimen artifizialeko tresna digitalak erabili genituen.

Mondragon Unibertsitateko Bilboko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, *Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta* formakuntzaren inguruan Bernardo Caal defendatzailearekin espazioa erraztu zen.

Donostiako Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Komunikazio Graduko ikasleekin bi topaketa egin genituen. Lehenengoa Desplazados.org eta Píkara Magazine-ko kazetaria den Magazine María Ángeles Fernández eta Bernardo Caalekin, eta bigarrena *Fikzio Klimatiko* dinamikarekin, Isidro Jiménezen eskutik.

*Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta* formakuntzarekin beste bi espazio antolatu genituen. Bata Lolita Chávez Ixcaquic defendatzailearekin Benta elkartze-espazioan izan zen, bertan *Bizitza Jokoan* erakusketa ere izan genuen. Beste formakuntza Fadurako Lanbide Heziketako Ikastetxean egin genuen eta Dalila Argueda defendatzaile hondurastarra egon zen, kriminalizazioa jasan zuen eta duela hiru urte Euskadin erbesteratzera behartuta dagoela. Hondurasen Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Sare Nazionaleko kide da, eta baita Erdialdeko Amerikako Emakume Defendatzaileen Ekimeneko (IMD) kide ere. Gaur egun Basoa gizarte-proiektuak, emakume defendatzaileen Bizkaiko (Euskadi) abegi-etxeak, abegia (babesa) ematen dio.



Azkenik, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza eta Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduetan Graduan desazkunde-teoriaren inguruko bi formakuntza erraztu genituen Oñatin eta Bilbon, hurrenez hurren.

## INTZIDENTZIA SOZIAL ETA POLITIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

*Bizitza Jokoan* kanpainaren bigarren fase horretan ere, hezkuntza, komunikazioa eta intzidentziaren lan guztiaren oinarria Latinoamerikan kasuen ikerketa da. Kasu horiek aipatu berri ditugun hiru eskubideen urraketa eta defentsaren isla dira. Oraingo honetan Hondurasen Guapinol, Mexikon Tarahumara Mendilerroko Choréachi eta Coloradas de la Virgen komunitateak eta Guatemalan El Estorren kasuen inguruko informazioa bildu genuen. Kasu bakoitzeko txostena gure webguneko *Argitalpenak – Ikerketak* atalean ikusgai dago eta laburpen grafikoagoa ondorengo estekan aurki daiteke: https://bizitzajokoan2.mugarikgabe.org/

Bernardo Caal bisitan zegoen bitartean, Lankidetzaren Euskal Agentziarekin Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin eta Gasteizko eta Bilboko udalekin bildu eta intzidentzia espazioak sortu genituen. Bere egoeraren jakitun diren eta Guatemalan lan egiten duten erakunde aliatu eta gizarte-kolektiboekin ere topaketa antolatu genuen. Gainera, egonaldia egin zuen astean EITBn, 97 irratian eta Grupo Noticiasen elkarrizketak egiteko denbora ere aurkitu genuen.

*Bizitza Jokoan* erakusketak Euskal Herriko kultura- eta hezkuntza-espazio ugaritan presentzia izaten jarraitu du. 2024an ondorengo tokietan bisitatzeko aukera izan genuen: Hondarribiko Liburutegian, Donostiako Casares-Tomasene Kultur Etxean, Donostiako UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean eta Karrantzako (Bizkaia) Karpin Faunan. Gainera, Getxon

hiru tokitan aurkeztu genuen: Benta elkartze-espazioan, Gobelako Polikiroldegian eta Fadurako Lanbide Heziketako Ikastetxean.

Beste urte batez, Gipuzkoako udalerri eta eskualdeetan bizitza jasangarriekin eta politiken koherentziekin lerrokatutako politika publikoak hartzea sustatzeko lanean jarraitu dugu. Iaz, zehazki, Urola Erdian (Azkoitia) Iraurgi Berritzen Tokiko Garapen Agentziarekin lankidetzan aritu ginen eta Donostiako Udaleko Politiken Koherentzia taldean parte hartu genuen. Saioetan jasangarritasunarekin eta tokiko garapenarekin lotutako arloetako teknikariek eta zinegotziek parte hartu zuten.

Komunikazio, hedabide-eragina eta intzidentzia mailan, kazetari eta giza eskubideen defendatzaileekin Guatemalara egindako bidaia izan zen jarduera nagusia. Txosten honetan erreportaje osoa aurkituko duzue.



# GUATEMALARA BIDAIA KAZETARIEKIN

## JONATHAN MARTINEZ

«Multinazionalek Guatemalatik eskuak odolez blai eta poltsikoak nikelez beterik alde egiten dute. Guk motxilan arpilatutako herrien hitz bizia, haien erresistentzien testigantza eta ahaztea merezi ez duen aintzira amaigabearen oroitzapena ekarri ditugu».

## DANI DOMÍNGUEZ (LA MAREA)

Guatemalako herri indigenen borroken errealitatea Mugarik Gaberen eskutik ezagutu ahal izatea bete-betekoa izan da. Haiekin lan egin duen erakundea denez —eta, gainera, Prensa Comunitaria bezalako hedabideak lagundu gintuenez—, errealitateetara hurbildu ahal izan ginen, beste moduren batean beharbada zailagoa izango zen. Era berean, aurrekontu eskasagoak dituzten kazetaritza-proiektu txikientzat baliabide ekonomikoak izatea laguntza handia da.

## LEIRE ARTOLA (ARGIA)

Euskal Herrian ere kapitalismoak itsututa eta itota gaituen garaiotan, kazetariok bidaia honetatik ekarri dezakegun gutxienekoa da kolonialismo basatiak erasandako eta isilarazitako zapalkuntza historia horiek guztiak argitaratzea. Irakurleei begirada harantz mugiarazten saiatzea. Eta ez da gutxi, komunitateetako herritarrek hala erakutsi digute, behintzat: lurren eta giza eskubideen defentsan ari direnek behar dituzte euren ahotsak duinki entzuten eta kontatzen dituzten kazetariak ere. Prensa Comunitariako kazetariengandik ikasi dugu titular ponposoen gainetik daudela elkar zaintza, komunitatea, eta kazetarion iturri diren lekukoen duintasuna eta babesa. Bizitza jokoan dutenen sumina arintzea ez dago gure esku, baina mina eragiten duten handikien injustiziak eta kolonialismoaren zapalkuntzak agerian jartzea, bai. Eskerrik asko, Mugarik Gabeko parte zareten guztioi, bide hori hautatzeagatik eta hedabide txikion indarrean sinesteagatik.

*Bizitza Jokoan II* kanpainaren baitan azaroan Guatemalara egindako bidaia ez dugu ahaztuko. Ez dugu ahaztuko, izan ere, bidaia Jesús gure kidearekin pentsatzen eta antolatzen hasi ginen. Fénix meatzaritza-gunearen aurrean erresistentzia azaltzen duten El Estorreko komunitateetako autoritateei *in situ* udalerriko kasuaren inguruko Jesúsen ikerketa-lana aurkeztu eta entregatu ahal izan genien.

Horrez gain, ez dugu ahaztuko Amada Chávez eta Isela González kideak ezagutu eta haiengatik hainbeste ikasi ahal izan genuelako, Mexikoko Tarahumara Mendilerroko Rarámuri komunitateak defendatzeagatik mehatxuak jasaten dituzte eta lekualdatu behar izan dira.

Lagundu gintuzten kazetariekin partekatutako bidaia, elkarrizketa, bazkari eta barre uneak ere ez ditugu erraz ahaztuko eta haien hitzak erreportaje honetan bildu ditugu. Eskerrik asko, Prensa Comunitaria, Argia, EITB, La Marea, Público eta Naiz, horren guztiaren berri emateagatik eta laguntzeagatik.

Eta, batez ere, El Estor, Chapin Abajo eta Sacatalji-n erresistentzian dauden komunitateetako kideak eta defendatzaileak eta Bernardo Caal ezagutu eta entzun ahal izanaez dugu ahaztuko. Gu Euskal Herrira itzuli ginen, baina haiek lehenengo lerroan jarraitzen dute eskubideak, lurraldea eta natura defendatzen.

Hemen bidaiaren kontakizun laburra eta irudiak.



## 1go EGUNA - 25, ASTELEHENA

Bidaiako talde guztia Guatemala hiriko hotelean geunden eta gero bi autobusetan lauzpabost orduz gure erakunde kide ASECSAk Cobánen duen formakuntza-zentrora bidaiatu genuen. Bertako instalazioetan ostatu, erraztasun guztiak eta arreta eman ziguten.

Arratsaldean Guatemalan eta Alta Verapazen enpresen jarduerak eta lurraldearen defentsak suposatzen dutenaren ikuspegi globala ezagutu ahal izan genuen.

Isela Gonzálezek eta Amada Chávezek, ASMACeko kideek, Mexikoko Tarahumara Mendilerroan gertatzen ari dena kontatu ziguten. Haiek Rarámuri komunitateak bortxazko desplazamenduengatik, legez kontrako baso-mozketatik, jauntxokeriatik eta krimen antolatutik defendatzeagatik babes-neurriak dituzte.



## 2. EGUNA - 26, ASTEARTEA

Goizean, El Estorreko kasuaren inguruko dokumentala ikusi ostean, Juan Bautista Xol kazetari komunitarioak meatzaritza-enpresa eta polizia--indarren kontrako komunitateen erresistentziaren inguruko informazioa biltzeak berarentzat suposatu zuena azaldu zigun.

Arratsaldean, Bernardo Caal protagonista izan zen, Cahabón ibaiaren alboan bere borroka-istorioa ezagutu genuen. Ibaia defendatzeagatik kriminalizatu eta lau urtez kartzelaratu zuten. Preso egondako kartzela ere bisitatu genuen.

«Gainera, inork epaituko ez duen *ekozidioa* da», helarazi zigun Bernardok, «hidroelektrikoek ibaia torturatu, sarraskitu eta erailtzen dute».

Proiektu horretan Guatemalako Corporación Multi Inversiones eta Espainiako Florentino Pérezen ACS enpresak sartuta daude.



## 3. EGUNA - 27, ASTEAZKENA

Cobánenik goizean goiz irten ginen eta, bost orduko bidaia, ia 1500 metroko jaitsiera eta tenperatura 15-20 gradu igo eta gero, El Estor udalerrira heldu ginen. Aldez aurretik kasuaren inguruko informazioa bildu eta gero bisitatu ahal izan genuen.

Antzinako autoritateak, arrantzale-gremioko ordezkariak eta aintziraren ertzean kokatutako meategiaren eta aintziraren ondoan bizi diren komunitate desberdinen ordezkariak gure zain zeuden.

Gobernuaren, erakundeen eta komunikabideen aldetik jasaten ari diren erabateko utzikeriagatik haien haserrea adierazi ziguten, nahiz eta hainbat pertsona kriminalizatu, espetxeratu, haien lurrak bortxatu, jazarri eta erail dituzten. Gainera, biztanleria zaintzeko eta erosteko saiakerak etengabeak dira. «Gure pobrezia saltzen dute, enpresek gure pobreziari probetxua ateratzen diote eta biztanleria erosten dute», adierazi zuen Pedro Xolek.

Borrokaren ondorioz eta isun bat dela eta, Fénix meatzaritza-guneak, errusiar-suitzar Solway Investment enpresa-taldea atzetik daukanak, gaur egun ez du jarduten. Dena den, jarduerari berehala ekiteko, aintzira kutsatzen jarraitzeko eta nikel eta bestelako materialez betatako ehunka kamioik El Estor udalerriaren erdigunea etengabe gurutzatzeko beldurra antzematen da.

«Emakume borrokalaria naiz, eta ez dut inoiz aurpegia ezkutatu», ohartarazi zigun Angélica Choc-ek, heldu eta berehala grabatzeko baimena eskatu genionean. Amaitzeko, Tomas Chiculcul-ek hau ondorioztatu zuen: «Konpainia horrek gure eskubideak urratzen dizkigu gure eskubideak defendatzeagatik, hain zuzen ere. LANEren 169. hitzarmena ez da betetzen gure lurraldean, nahiz eta estatuak idatzita izan. Gobernuak ez gaitu kontuan hartzen. (...) Krimen guztiak iker ditzatela eta kontsulta egin dezatela, herriak erabaki dezala, eta meategiaren aldeko emaitza ateratzen bada, horrela izango da».

Adierazi berri ziguten sufrimendu guztiarekin kontrastean, Izabal aintziraren ertzean ilunabarraz gozatu ahal izana ez dugu inoiz ahaztuko.

## 4. EGUNA – 28, OSTEGUNA

06:30ean bi txalupan handitan ia itxasoa dirudien Izabal aintzira erraldoia gurutzatzen hasi ginen, Chapin Abajoko komunitaterantz abiatuta.

Komunitate guztiak ongi etorri beroa egin zigun, aurre egiten duten errepresio egoera gorabehera. Bertan, biztanleria estutzen eta itotzen duena komunitate osoa inguratzen duen palma afrikarra da. Palman erabiltzen diren ongarriek azkenean aintzira ere kutsatzen dute.

Mehatxuak eta harrapaketa-aginduak gorabehera, Chapin Abajoko komunitateak bere antzinako lurraldearen zati bat berreskuratzea lortu du, palmari lekua irabazteari esker. Landare horren olioaren zati handi bat Alemaniara esportatzen da. Lider batek adierazi zigun bezala, «gure guraso eta aiton-amonei palmaren etorrerarekin lana, eskolak, garapena, kotxeak etab. agindu zizkieten, baina ez da ezer heldu —gehitu zuen—. Arreta gure kosmobisioan jartzen badugu, ez dago gelditùko gaituen munstrorik».



Argazkirik hoberenak ateratzeko xedearekin, txalupaz aintziraren beste ertzera itzultzean Fénix meatzaritza-gunera hurbiltzen saiatu ginen, enpresaren segurtasunaren arreta gehiegi deitu gabe. Egituraren tamaina eta mendian eragindako inpaktua ikustea izugarria da.

## 5. EGUNA – 29, OSTIRALA

Kazetariekin batera egindako bidaiako azken egunean, Cobánen prentsaurrekoa egin genuen eta zenbait komunikabide joan ziren. Bidaia kontatu genuen eta, batez ere, meatzaritza-enpresen, palma afrikarraren eta hidroelektrikoen aurrean lurraldea defendatzen duten tokiko komunitateen eta kolektiboen eskaerak helarazi genituen.

# ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA FEMINISMOAK

## ERREPARAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA INDARKERIA MATXISTEN KONTRAKO ESTRATEGIA GISA




Otsailean *Kintsugi: Indarkeria Matxistatik Biziraun duten Emakumeei Erreparazio Ekitaldia* egin genuen.

*Kintsugi* urtebete baino gehiagoko eraikuntza kolektiboko prozesu baten amaiera izan zen eta honako erakunde hauekin egin genuen: Zehar Errefuxiatuekin, Bizitu, Feministalde, Mujeres del Mundo Babel eta Colectiva Feminista de El Salvador.

Prozesuan, indarkeria mota desberdinak bizitako zortzi emakumeren ezinbesteko parte-hartzea izan genuen, hala nola jatorrizko herrialdean haurren ezkontza, indarkeria transfoboa, bikotekidearen eta bikotekide ohiaren indarkeria, indarkeria instituzionala, indarkeria bikarioa eta emakume migratzaile eta arrazializatuek etxe barruko neskame gisa jasandako indarkeriak.

Bilborocken partekatu nahi zutena entzuteko espazioa sortu genuen. Gero, musikarekin, kartelekin eta oihuekin kalera atera ginen, ikusgarri bihurtu eta gure salaketa eta aldarrikapenak espazio publikora eramateko. 25N plazan amaitu genuen, haien erreparazioa jasotzeko eskubidearen aldarrikapenak irakurri zituzten eta emakumeen eskubideen defentsan bide luzea egindako hiru sareren lana aitortu zuten.



Egun hori, aurreko lan guztia eta parte hartu zuten guztiak lerro gutxi batzuetan laburtzea zaila da, hainbat emakume ahal zuten heinean laguntzen inplikatu ziren, hala nola musikariak eta artista plastikoak, agurrak bideoen bitartez bidaltzen.

Indarkeria matxisten biktima eta biziraule diren emakumeekin erreparazio-prozesuak materializatzeko lanean jarraitzen dugu, gizarte-ardura delako eta instituzioen aurrean prozesu horiek abian jarri behar direla aldarrikatzeko.




## MEMORIA ERAIKIZ INSTITUTUETAN

*Memoria Eraikiz* proposamen artistikoarekin jarraitu genuen, zehazki institutuetako ikasleei bideratuta. Hernanin, Agurainen eta Ermuan egon ginen eta ikasturtean zehar ekimen honen baitan beste ikastetxeetan jarraituko dugu.

## EGIARAKO, JUSTIZIARAKO ETA ERREPARAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEARI BURUZKO FORMAKUNTZAK

2024an zehar, erreparazioa jasotzeko eskubidearen inguruan hitz egiten jarraitzeko zenbait espaziotan parte hartu genuen, ELAk azaroaren 25ean antolatutako *Aitortu, erantzun, erreparatu: hacer frente a las violencias machistas* jardunaldian, Ermuako emakumeen etxean antolatutako erreparazioaren inguruko hitzaldian, eta Bizitu erakundeak antolatutako *Reparar para seguir caminando juntas* jardunaldian egon ginen.



## EMAKUME DEFENDATZAILEAK BABESTEKO ERRONKAK

Ekainean Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Erdialdeko Amerikako Emakume Defendatzaileen Ekimeneko kideen bisita izan genuen eta Basaurin topaketa batean parte hartu zuten. Antolatu genuen mahai-inguruan azken txostena aurkeztu zuten, *Datos que nos duelen, redes que nos salvan: 10+ años de agresiones contra defensoras de Derechos Humanos en Mesoamérica* (2012-2023), eta babeserako estrategia anitzak azaldu zituzten. Horrez gain, entitate publikoek garatu ditzaketen estrategiak eta laguntzak instituzioekin partekatzeko eztabaida, eta zaintzak eta sendatzea estrategia politiko gisa lantzen zituen eskola antolatu genituen, bigarren hori erakunde eta kolektiboetako emakumeei zuzenduta.




Era berean, Irungo Emakumeen Etxean MQCk *Jabetuz eta sareetan ez korapilatuz* eskola egin zuen, inguru digitaletako indarkeria matxista aztertu eta babesteko tresnak lantzeko.

## ABORTUA BAI, ABORTUA EZ, NIRE ERABAKIA DA

2013an Beatrizen kasua argitara atera zen, lupus gaixotasuna zuen El Salvadorreko emakumeak anentzefalia zuen umeki batekin haurdun zegoen eta abortua egitea eskatu zuen. El Salvador abortua zeharo zigortzen duten herrialdeetako bat da.

Orduan, hasiera batean, bere osasuna oso kaltetuta zegoenez, abortua egitearen aldeko borroka hasi zen eta, gero, El Salvadorreko estatuak bere eskubideak urratu zituela aldarrikatzeko borroka egin zuten. Borrokan zenbait elkarte feminista lagundu zioten, hala nola Agrupación por la Despenalización del aborto eta Colectiva Feminista, Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegira heldu zen eta epaia abenduaren 20an argitaratu zuten.



Azaroan Morena Herreraren bisita izan genuen eta aborturako eskubidea aldarrikatzeko beharraz mintzatzen jarraitu genuen. Baina aldarrikapena ez da Latinoamerikara mugatzen, Europan ere olatu erreakzionarioa bizitzen ari gara eta zenbait herrialdetan murrizketak daude. Laia Eskolarekin lankidetzan, Gasteizko unibertsitatean eta Burgu edo Laudio bezalako herrietan hitzaldietan parte hartu genuen. Horrez gain, intzidentzia politikoko espazioetan egon ginen, esaterako, Sexu eta Ugalketa Eskubideei buruzko Eusko Legebiltzarreko Taldeartekoan, eta Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko Lankidetza eta Berdintasuna arloetako arduradunekin eta teknikariekin.

Gainera, oraindik ere hedatzen ari garen zenbait material egin genituen, hala nola bideo bat eta erakusketa bat.

## LANKIDETZAK

Joan den urtean ere, aurrekoetan bezala, proposamen eta ekintza bateratuetan hainbat erakunderekin parte hartzen eta lankidetzan jarraitu genuen.

- 2026an egingo den eta Gernika Gogoratuz taldeak bultzatutako *Mundos Mujeres en Euskal Herria: Pazes desde las prácticas comunitarias* nazioarteko kongresuko talde motorrean parte hartu genuen.

- Emaginekin garatzen ari diren ikerketan baten markoan elkarlanean aritu ginen eta haiek antolatutako *Torturak ikuspegi feministatik aztertzeko topaketetan* parte hartu genuen.

- Setem Hego Haizeak bultzatutako *Indarkeria Kontsumitzen Dugu* prozesuaren hirugarren fasean parte hartu genuen eta haiekin aisialdian indarkeria matxistak errepikatzean sakondu dugu.

- Formakuntzaren bidez, beste erakundeekin elkartrukeak egiten eta haiekin ikasten jarraitu dugu. Antolakundeko aldaketa feministaren inguruko formakuntzak (Estatuko Koordinakundea, EDE y Estatuko Reas – Idearia) eta proiektu zein ekintzetan modu eraldatzailean genero ikuspegia txertatzeko formakuntzak nabarmendu nahi ditugu (Nafarroako Koordinakundea eta Formakunde).

- 2022an elkarrizketa eta lankidetzarako espazioa sortu genuen. Colectiva Feminista eta Mugarik gaberekin batera, UPV/EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterreko eta El Salvadorreko UESeko Genero Maisutzako irakasleek parte hartzen dute oraindik gaur egun mantentzen den eztabaida- eta lankidetza-espazioan.

# BARNE-PROZESUAK MUGARIK GABE

2024an erakunde feministagoa eraikitzeko gure proposamenean aurrera egin genuen eta *A pico y pala* genero ekitatearen aldeko gure planaren ekintzei jarraipena eman genien, honako hauetan azpimarra berezia jarrita:

## ZAINTZETAN SAKONTZEN

Mugarik Gaben zaintzetan sakontzeko denbora hartzeko, Fil a L'Agulla-ren laguntza izan genuen. Horretarako, gure erakundearen zaintzak nola ikusten genituen diagnostikoa egin genuen. Ondorioak kolektiboki partekatu ostean, botere, lidergo eta autogestiora bideratutako formakuntza-espazioa izan genuen. Ondoren, Mugarik Gaben gaiaren inguruan eztabaidatzeko saio batzuk izan genituen eta gure funtzionamendurako aldaketa-proposamenak jaso genituen, betiere zaintzak bizitzeko modua hobetu zezaketen lan egiteko eta erabakiak hartzeko era berriak txertatzeko helburuarekin.




## ERRAZTASUNAK AREAGOTUZ

Gobernantza-prozesu feministagoak izateko asmoz, gure asanbladetan, erabakiak hartzeko espazio nagusietan, erraztasunak ematearen eta hitzartze emozionalen rolak duela zenbait urte txertatu genituen eta horien funtzionamendua ebaluatzeko denbora hartu genuen.

Era berean, erabakiak hartzeko bestelako ereduak ezagutzeko kanpoko laguntza jaso genuen, zehazki, *soziokrazia* ezagutzeko eta gure funtzionamenduan ereduaren proposamenetako batzuk txertatzeko, erabakiak hartzeko modu hobeak bizitzea bilatzeko xedearekin.




## DENERA IRITSI EZINAREN AURREAN, LAN-POLITIKA FEMINISTA

Erakundearen aldaketa feministaren prozesuaren baitan, ikuspuntu horretan erakundearen arloan zaintzak txertatu nahi ditugu. 2022tik eraikuntza kolektiboko prozesuan gaude Setem Hego Haizea, Mugarik Gabe, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, REAS Euskadi eta Colectiva XX-Krekin batera, eta haiekin lan-politika feministaren esanahian eta zehaztapenean sakondu genuen.

2024an, aldez aurreko lanean eta eraikuntza kolektiboa oinarri hartuta, guztion bizitza erdigunean jartzeko lan-politika definitzeko hamar hastapen eta hogei akordio eraikitzeko argitalpena zabaldu genuen.



# NAZIOARTEKO LANKIDETZA

## BOLIVIA

2024an garatutakoak Komunikazio Indigenaren Sistema Plurinazionaleko esperientzia luzeari jarraipena eman zion. Ikuspegi *deskolonizatzaile* eta *despatriarkalizatzailearekin*, sistemaren rolak lankidetza indigena eta eskubideen aldeko borroka indartu ditu. Prozesuak erakunde indigenetako kide askok formakuntza teknikoa eta politikoa jasotzea ahalbidetu zuen. Horrela, komunikazio indigena gizarte-eraldaketarako, herrien eskubideen hedapenerako eta defentsarako, eta kulturarteko elkarrizketarako tresna gisa erabili zuten. Eskubideekin eta gai estrategikoekin kritikoa izanda, formakuntzak erakunde indigenek modu artikulatuan eztabaidak eta proposamenak izatea ahalbidetu zuen, gero elkarrekin interes bereziko legeen eta politiken onarpenean eragiteko. Politika eta komunikazioko lan horrek Boliviako herri indigenen ikuspegitik eta proposamenetatik abiatuta estatu plurinazionala eraikitzen nabarmen lagundu zuen zenbait arlotan, hala nola ekonomia komunitarioan eta elikadura burujabetzan, autonomia indigenetan eta hezkuntza elebidun *deskolonizatzailean*. Emakumeen eskubideei dagokienez, borroka batez ere indarkeria mota guztien aurka eta gizartean zein politikan haien parte-hartzea sustatzera bideratu zuten.

Marko horretan, 2024ko etapan garatutako guztia prozesu horren jarraipena izan zela aipatu beharra dago, Boliviarentzat une historiko eta politiko zehatzari erantzuna emateko. Izan ere, gizarte mugimendua bateratzeko Batasun Itunaren baitan erakunde indigenak txertatzeko esfortzuak bateratzea beharrezkoa zela agerikoa



zen, aldaketa-prozesuak jarraitzeko mehatxuak jasaten baitzituzten eta estatu plurinazionalaren eraikuntzan lanean jarraitzeko beharra baitzegoen. Hori guztia klima-krisiak Bolivian izan ditzakeen inpaktuen inguruko kezkaren testuinguruan gertatzen zen, batez ere gune sentikorretan, hala nola presentzia indigena eta nekazari handiko eskualde tropikaletan, azken urteetan sute indartsu eta menderaezinak eta lehorteak jasan dituzte eta.

Mugarik Gabe La Paz iparraldeko eskualdean intzidentzia-ahalmenak indartzeko eta klima--krisiaren aurrean kulturarteko komunitateek, emakumeek eta indigenek estrategia berriak garatzeko laguntzen aritu da. Ondorioz, Komunikazio Indigenaren Sistema Plurinazionalaren eta La Paz iparraldeko eskualde tropikaleko Komunikazio Komunitarioko Zentroaren lana indartu du, baita bigarren horren hedabideak ere, hala nola Televisión Indígena eta Radio Comunidad, APC Agencia Plurinacional de Comunicación edo Boliviako telebista indigena Plurinacional TV plataformekin lakidetzan.

Bideo, irrati eta sare sozialetarako formatuan hedapenerako zenbait material ekoitzi eta, Bolivia TV estatuko telebistaren, sare sozialen eta mintegien bitartez, *En Defensa de la Madre Tierra nos Organizamos Frente a la Crisis Climática* intzidentzia kanpaina zabalaren baitan edukiak zabaldu zituzten. Guztira kanpaina 49.780 pertsonari heldu zitzaien. Klima-krisiari aurre egiteko erronkek ezaugarritutako egungo une konplexuan, ingurumenaren egoeraren inguruan kontzientzia handiagoa izateko lagundu egin du komunikazioak. Gainera, haien egoera eta eskubideak errespetatzeko zein emakumeentzat indarkeriarik gabeko bizitza bermatzeko eskariak agerikoagoak izatea ahalbidetu du.

## KOLONBIA

### CORPORACIÓN PARA LA VIDA MUJERES QUE CREAN (CMQC)

2024an zehar, CMQCtik abian zeuden zenbait prozesu indartu zituzten. *Bioleta ahaldundu egiten da eta sareetan ez da korapilatzen* programan, inguru digitaletan dinamika eta harremanak izateko modu berriei aurre egiteko inguru digitaletan genero indarkeriak jorratzea ezinbes-




teko eta beharrezko gaia dela ikusi zuten. Hala, harrera ona izan zuen eta emakume gazte, lider, irakasle, eta GKE-etako zein Medellín hiriko entitate publikoetako langileekin zaintza-gaitasunak eta *ziberzaintza* indartzeko espazio berriak sortu ahal izan zituzten.

*SiempreVivas* programaren baitan, Medellín hiriko zein Aburrá haranaren iparraldeko GKE-etako eta entitate publikoetako langileen eta lider defendatzaileen norbanakoen eta erakundeen autozaintza, autobabesa, kideen arteko zaintza eta zaintza kolektiboko gaitasunak indartzeko bidean aurrera egin zuten. Zaintza feministaren ikuspuntutik, Antiokia departamentuko emakume defendatzaileentzat prebentzio-, babes- eta laguntza-prozesuak garatu zituzten. Departamentu hori nazioan gizarte-liderren aurkako eraso, mehatxu eta erailketa gehien dituztenen artean bigarrena da.



*Confluencia por el derecho de las mujeres y las niñas a una vida libre de violencias* programan *Confluencias y diálogos* jardunaldia nabarmena izan zen, emakume anitzen eta instituzioetako ordezkarien parte hartzearekin. Autoritateen eta emakume parte-hartzaileen artean elkarrizketa hurbila, humanizatua eta zintzoa ehundu ahal izan zuten, eta emakumeek dituzten trabak aitortu ez ezik, genero ikuspegia duen arreta humanizatua bermatzeko autoritateek dituzten traba instituzional eta subjektiboak ere aitortu zituzten.

## ACINEKO ETA CAUCAKO INDIGENEN ESKUALDE KONTSEILUA (CRIC)

Caucan, narkotrafikoarekin eta baliabide naturalen ustiapenarekin, hala nola urrea, egurra, azukre-kanabera eta urarenarekin, lotutako legez kontrako eragile berriek bilatzen duten lurralde-kontrola dela eta, komunitate indigenek indarkeriaren areagotze larriari aurre egin behar diete. Gertakarien artean bortxazko desplazamenduak, erailketak eta mehatxuak daude, betiere eskualdeko komunitate indigenen jabegokoak diren antzinako lurraldeak hartzeko helburuarekin.

Testuinguru horretan, **Caucako Indigenen Eskualde Kontseiluarekin (CRIC)** eta **Ipar Caucako Kabildo Indigenen Elkartearekin (ACIN)** batera, CRIC osatzen duten hamaika herrietara bideratutako babes eta laguntza humanitarioko estrategia integrala burutzen ari dira. Lanaren helburua bi entitateen barne-antolamendua indartzea eta Kiwe Thegnas lurraren defendatzaileak ahalduntzea da, enpresa transnazionalek eta krimen antolatuko taldeek ezarritako bipiltzearen aurrean erresistentzia azaltzen duten herrien babes kolektiboa bermatu ahal izateko.



Estrategia horren osagai gakoa Kiwe Thegnas emakumeak ahalduntzea da, bizitzaren defentsan ezinbesteko rola baitute. Zaintza kolektiboaren buru izateko eta ekintza politikoak bere gain hartzeko, ohiko zaintza-rolekin apurtzen ari dira. Horregatik, kriminalizatu eta seinalatu egiten dituzte, baina, gizonezko kideekin batera, lurra eta lurraldea defendatzen jarraitzen dute naturarekin harmonia babesteko eta haien komunitateen bizitza bermatzeko xedearekin.

Lerro berean, **CRICeko *Emakumea Programatik***, Caucako emakume indigenen eskubideen defentsaren alde lanean jarraitu zuten. Indarkerien kontaketari eta horiek ikusarazteko kanpainari amaiera emateko, Emakumeenganako Indarkeriaren Behatokiak podcast formatuko buletina argitaratu zuen eta atalen bidez emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinak kontatu zituzten. Podcasta zenbait irrati komunitariotan hedatu zen eta ahozko formatuak lurraldeetan eragin handiagoa izan zuen.

Gainera, urtean zehar, emakumeen parte-hartze politikoa indartzen jarraitu zuten. Lan horren adibide berri eta argia CRICen XVI. Kongresua da, izan ere, ekitaldian, bi emakumek CRICeko kontseilari nagusi kargua hartu zuten.

## KOLONBIAN GIZA ESKUBIDEAK BEHATZEKO EUSKAL ORDEZKARITZA

2024an Euskal Ordezkaritzan parte hartu genuen; Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak; eLankidetza - Eusko Jarularitzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak; Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeak; Euskadiko GGKEen Koordinakundeak; eta Alboan, Mugarik Gabe eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeek osatuta. Mugarik Gaben, Kolonbian egiaztapen misio batean parte hartu genuen, Antiokiako Elkarte Indigenarekin (OIA) lankidetzan Antiokiako giza eskubideen emakume defendatzaile baten egoera ebaluatzeko. Defendatzailea 2023an Euskal Herrian egon zen eta, bere testuingurura itzultzean, itzuleraren arrisku-balorazioa egin genuen. Azterketaren baitan, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide Batzordeko legebiltzarkideekin herrialdera bidaiatu genuen.

Misioa bitartean, zenbait instantziarekin bilerak izan genituen, hala nola NBEren Egiaztatze Misioa, Iheslarientzako Nazio Batuen goi-komisarioa (UNHCR), Geneva Call, Antiokiako Gobernazioko Giza Eskubideen Zuzendaritza, Lurren Agentzia Nazionala (ANT) eta Herriaren Defendatzailea. Egindako esfortzuak gorabehera, bisitatutako lurraldeetan giza eskubideen bermean hutsune larriak ikusi genituen.

Antzemandako arazoen artean, legez kontrako talde armatuen etengabeko presentzia nabarmentzekoa da, landaguneko komunitateen aurkako indarkeriak areagotu egin dituzte, bereziki indigenen, anfro-ondorengoen eta nekazarien aurkakoak. Lurraldeetan segurtasun-baldintzak erabat larriak dira eta gizarte-lidergoen aurkako mehatxuak eta erasoak sistematiko bihurtu dira.

Talde horiek darabiltzaten gizarte- eta lurralde-kontroleko estrategiak anitzak dira: gizarte-lidergoen kooptazioa, mugikortasuna murriztea, jarrera-arauak ezartzea, itxialdiak eta etxeratze aginduak. Ekintza horiek legez kontrako ekonomien presentziarekin lotura dute, besteak beste, narkotrafikoarekin, eta indarkeria eta gatazka armatua betikotzen dute.

Adingabeak errekrutatzea beste arazo larria da, mikrotrafikoaren bidez behartu, hertsatu, engainatu edo kontrolatu egiten dituzte. Horri emakumeen, nesken eta emakumezko nerabeen aurkako sexu-indarkeria gehitu beharra dago, gatazkaren testuinguruan gerrarako arma gisa erabiltzen baitute.

Horrez gain, Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioaren ezarpena oraindik ere nahikoa ez dela argi geratu zen, batez ere genero ikuspuntu bereizgarriari dagokienez. Erabateko Bakea lurraldeetan modu integralean ezartzen ez baldin bada, politika publikoak muga handiak ditu. Gainera, gizarte-liderren kontrako indarkeria kasuena zigorgabetasuna ohikoa da, eta ikerketan, judizializazioan eta arduradunen aurkako isunetan ez dago aurrerapenik.



Francia Márquez eta Gustavo Petroren egungo gobernuak giza eskubideekin konpromiso argia azaldu du eta hirurogei urte baino gehiagoz Kolonbian eliteen pribilegioak eta indarkeria betikotu dituen sistema deuseztatzeko lanean dago. Hala ere, historikoki interes pribatuentzat aritu den estatuko egitura eraldatzea oraindik ere denbora, baliabideak eta nahi politiko egonkorra eskatzen dituen erronka erraldoia da.

## TREBAKUNTZARAKO HERRI INSTITUTUA (IPC) ETA ANTIOKIAKO ELKARTE INDIGENA (OIA)

Etapa berrian sartzen ari gara eta Antiokiako Elkarte Indigenaren (OIA) pean antolatuta dauden Antiokiako komunitate indigenekin lanean jarraituko dugu. Lana Trebakuntzarako Herri Institutuarekin (IPC) batera burutuko dugu, hau da, komunitate horien giza eskubideak indartzeko Bake Kontseiluaren ahalmenean konfiantza duen erakunde kidearekin.

Gure ikuspuntua emakume indigenen ekarpenak ikusaraztera eta areagotzera bideratuko dugu bereziki, izan ere, haiek dira bakea eraikitzeko ekarpenik handiena egiten dutenak. 2025erako, komunitate horien behar zehatzak identifikatzea ahalbidetzen duten ekintza humanitarioak egitea proposatzen dugu, azpimarra emakumeengan jarrita, haien eskaera eta errealitateetan oinarritutako intzidentzia politikoko estrategiak garatzeko xedearekin.



## EL SALVADOR

El Salvadorren, gaur egun, Nayib Bukeleren bigarren lehendakaritza-aldian, testuinguru soziopolitikoa konplexua da.




Bukele 2019an boterera heldu zenetik, baliabideak, politika eta estatuko botere guztien kontrola etengabe zentralizatu egin ditu, prozesuan, udalen finantzaketa eta autonomia deuseztatu ditu, espazio zibikoa itxi du, eta parte-hartze mekanismoak eta demokrazia bera arriskuan jarri ditu. Gainera, testuingurua gizarte-protestaren estigmatizazioak, fundamentalismoen gorakadak eta giza eskubideen urraketa larriek ezaugarritzen dute.

Testuinguru horren aurrean, Mugarik Gabek mugimendu feminista salvadortarrarekin lanean jarraitzen du, tokiko garapenerako Colectiva Feministaren eta Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vidaren bitartez.

Emakume defendatzaileen antolakuntza, lankidetza, intzidentzia, babesa eta autonomia ekonomikoa indartzeko eta areagotzeko lanean jarraitzen dugu, segurtasun, jasangarritasun eta duintasun handiagoko baldintzetan defentsa-lanetan jarrai ahal dezaten. Kideekin batera, haien sare eta erakundeetan gure lana Babes Integral Feministaren jabetzan txertatzeko apustua egiten jarraitzen dugu.

## COLECTIVA FEMINISTA

Unibertsitate Nazionalean, giza eskubideen ikuspegi feministatik, indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidearen alde lanean jarraitzen dute, UESen baitan unibertsitateko ikasleak eta irakasleak indartzeko prozesuaren garapenean.

Gainera, emakume gazte eta helduen aniztasun eta intersekzionalitateetatik abiatuta, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eskubideen defentsan laguntza ematen diegu gizarte eta genero indarkeria egoera berrien aurrean.

